EUSKAL KONFEDERAZIOA

EUSKARAREN ALDEKO ENGAIAMENDUAREN BAROMETROA

20 neurri konkretu, agintaldiaren lehen urtetik
herriko etxeek ere euskararen alde eragiteko.

1/ Helburuak

2026ko bozen karietara, Euskal Konfederazioak « Euskararen aldeko engaiamenduaren barometroa » aurkezten du. Tresna horren bidez, Ipar Euskal Herriko lurraldeetako herrietan aurkezten diren zerrendek aukera badute euskararen alde duten engaiamendua erakusteko, 20 neurri konkreturen inguruan posizionatuz.

Emaitza horiek publikatuko dira, hautesleen aurrean aurkeztuz zerrenda bakoitzarentzat « engaiamendu maila orokorra » nota bat, bai eta 5 ardatzen inguruan eraikitako diagrama bat adierazteko engaiamenduaren pundu azkar eta ahulak.

Aukeratu diren bost ardatzak dira :

- Hizkuntza politikaren baliabideak
- Euskararen transmisioa
- Euskararen erabilera
- Euskararen prestigioa
- Euskararen ikusgarritasuna

Hauteskunde egunaz aparte, lan hori baliagarri daiteke zerrendentzat aitzinetik hobeki gogoetatzeko eta artikulatzeko hizkuntza plana egituratu eta orekatua, bai eta hauteskundeen ondotik, bozak irabaziko dituzten zerrendentzat, agintaldiaren lehen urtetik, euskararen aldeko neurri konkretu eta eraginkorrak hartzeko.

2/ Prozedura

Urtarril hastapenetik, eta otsail bukaera arte (data laster zehaztuko da), Euskal Konfederazioak weborri berezi bat idekiko die zerrendei, inprimaki baten bidez beren engaiamenduak zehaztu ditzaten.

Ardatz bakoitzarentzat 4 engaiamendu proposatuak dira. Hautagaiek zehaztu beharko dute engaiamendu bakoitzarentzat ea bai ala ez horretan engaiatzen diren, eta, engaiatzekotan, zehaztu beharko dute testu labur baten bidez nola aurreikusten duten engaiamendu horren obratzea. Azalpen hori garrantzitsua izanen da notazio mementoan.

Epe bukaeran, Euskal Konfederazioak erantzunen balorizazioa eginen du, nota bat emanez ardatz bakoitzarentzat. Nota horren finkatzeko kondutan hartuko dira herriaren neurria (herri ttipi eta handiek ez dituzte behar eta ahal berak), testuinguru bereziak, engaiamendu kopurua eta engaiamendu horien inguruko azalpenak.

Emaitzak martxo hastapenean eginen dira publiko.

3/ Hogei neurriak

HIZKUNTZA POLITIKAREN BALIABIDEAK
LES MOYENS ALLOUES A LA POLITIQUE LINGUISTIQUE

1) Euskara teknikari postua sortu / egonkortu
   Créer ou consolider un poste de chargé de mission langue basque.
   >>> Zehaztu – Précisez…

2) Euskara batzordea sortu / egonkortu
   Créer ou consolider une commission extra-municipale dédiée à la langue basque.
   >>> Zehaztu – Précisez…

3) Euskararentzat berezko aurrekontua bozkatu
   Dédier et voter un budget de fonctionnement propre à la politique linguistique.
   >>> Zehaztu – Précisez…

4) Euskara plana eraiki eta bozkatu
   Construire et voter un « plan euskara » pour le mandat.
   >>> Zehaztu – Précisez…

EUSKARAREN TRANSMISIOA
TRANSMISSION DE LA LANGUE BASQUE

5) Herriko etxeko agenteak euskaldundu
   Former les agents municipaux à la langue basque.
   >>> Zehaztu – Précisez…

6) Eskolen euskarazko irakaskuntza eskaintza garatu
   Développer l'offre d'enseignement du basque dans les écoles de la commune.
   >>> Zehaztu – Précisez…

7) Helduen euskalduntzea lagundu (egoitza, beka…)
   Accompagner l'offre d'apprentissage des adultes (mise à disposition de locaux, bourses communales…).
   >>> Zehaztu – Précisez…

8) Lehen haurtzaroaren euskarazko harrera garatu
   Développer l'accueil bascophone de la petite enfance (MAM, crèches…).
   >>> Zehaztu – Précisez…

EUSKARAREN ERABILERA
PRATIQUE DE LA LANGUE BASQUE

9) Euskarazko zerbitzu eskaintza garatu Herriko etxean
   Développer les services en langue basque au sein de la Mairie.
   >>> Zehaztu – Précisez…

10) Euskarazko aisialdi eskaintza garatu
    Développer l'offre et l'accueil de loisirs en langue basque.
    >>> Zehaztu – Précisez…

11) Elkarte eta saltegiak euskararen erabiltzera akuilatu
    Encourager les associations et commerces à s'engager en direction de la langue basque.

>>> Zehaztu – Précisez…

12) Herritarrek euskara mintzatzeko espazioak eta aukerak sortu
Créer des espaces et des occasions pour que les bascophones et apprenants pratiquent l'euskara.
>>> Zehaztu – Précisez…

EUSKARAREN PRESTIGIOA
PRESTIGE DE LA LANGUE BASQUE

13) Euskararen aldeko ekimenetan parte hartu (urtaroa, korrika, euskaraldia)
Participer activement aux évènement en faveur de la langue basque (Urtaroa, Korrika, Euskaraldia…).
>>> Zehaztu – Précisez…

14) Agente eta hautetsiak euskararen erronkei formatu eta sentsibilizatu
Sensibiliser et former les agents et élus aux enjeux liés à la langue basque.
>>> Zehaztu – Précisez…

15) Herritarrak sentsibilizatzeko komunikazio kanpaina masiboa egin
Mener des campagnes de communication massives pour sensibiliser les citoyens.
>>> Zehaztu – Précisez…

16) Euskararentzat ezagupen ofizial bat bozkatu
Voter en Conseil municipal une reconnaissance officielle de la langue basque.
>>> Zehaztu – Précisez…

EUSKARAREN IKUSGARRITASUNA
VISIBILITE DE LA LANGUE BASQUE

17) Herriko komunikazioan euskara molde orekatuan erabili (aldizkari, web, gutun…)
Utiliser la langue basque de façon équilibrée dans la communication municipale (magazine, site internet, courriers…).
>>> Zehaztu – Précisez…

18) Hizkuntza paisaia euskaldundu (eraikin publikoak, seinaletika…)
Mettre en place un paysage linguistique bilingue (bâtiments publiques, signalétique…).
>>> Zehaztu – Précisez…

19) Euskal Hedabideetan komunikatu (iragarkiak)
Communiquer via les médias bascophones (publicités).
>>> Zehaztu – Précisez…

20) Soinu paisaian euskara molde orekatuan erabili (telefono harrera, igogailu…)
Utiliser la langue basque de façon équilibrée dans le paysage sonore (accueil téléphonique, ascenseurs, micros…).
>>> Zehaztu – Précisez…

4/ 21. galdera

20 neurrien ondotik 21. galdera batek aukera emanen die zerrendei gehitzeko aurreikusi dituzten beste neurri batzuk ez direnak baromateroak zerrendatzen dituen 20 neurrietan. Notazioan eragain dezake erantzun honek.